



## Blues eta jazz doinuen oihartzuna iritsi da

**TOLOSA** ▶ II. Tolosandblues Jaialdiak hartuko du herria hilaren 30etik uztailaren 2ra; Paul Lamb & The King Snakes da aurtengo apustua ▶ 2

**ARESO** ▶

Astomela-Matxain erreka auzolanean garbitzeko deia ▶ 9

N. LATABURU



### Ongietorri koloretsua Errota berriari

**TOLOSA** ▶ Joan den urrian ireki bazuten ere, atzo egin zuten Haur Liburutegiaren inaugurazio ofiziala, umeentzako ekintzekin ▶ 3

**TOLOSA** ▶

### Batel estropaden hastapenei begirada

40. hamarkadan garaipen asko lortu zituen bateletan Tomas Odriozolak ▶ 6



Tomas Odriozola. N. LATABURU



**IÑAKI SALBADOR** ▶  
DULTZAINA IRAKASLEA

«Sanjoanetan parte hartuz zerbait berezia sentitu izan dut»

Giroarte dultzaina taldearekin ariko da ▶ 5

Iñaki Salvador. J. SAIZAR

**ekar**

Utzi dena adituen esku. Erreserbatu orain testuliburuak eta zoaz lasai oporretara.

Aldizko esku utzi dut dena. Testuliburuak, erreserbatu ditugu eta lasai gozatu oporretara.

**ekar**  
ekar iragartzen dugutik

Testuliburu eta ikasmaterialetan adituak

www.ekar.com

MUSIKA ▶

# Blues eta jazz doinuak kalera, II. Tolosandblues jaialdian

Hil honen 30etik uztailaren 2ra bitarte garatuko da; Paul Lamb & The King Snakes taldea da aurten «garrantzitsua»



Argazkian, ezker-eskuin: Jon Gaztañaga, Mikel Zubiria, Iñaki Salvador, Ainara Ortega, Iñigo Martin, Andoni Iturzaeta eta Juantxo Izagirre. I. TERRADILLOS

## NOELIA LATABURU

Beste urte batez Tolosako kaleak blues eta jazz doinuekin beteko ditu Tolosandblues jaialdiak. Bigarren edizioa izango da aurtengoa, hil honen 30ean hasi eta uztailaren 2ra bitarte garatuko dena, Tolosako Udalak eta herriko beste hainbat sustatzaileek antolatuta. Egitarauaren aurkezpenean «guztiztat erronka bat dela» azaldu zuen, atzo, Andoni Iturzaetak.

Bi gune hautatu dituzte kontzertuak emateko: bata, Plaza Berria, kanpoan; eta bestea, Fronton kafetegian, estalia. Larunbatean, gainera, arratsalde osoan zehar, Amama Luisa Big Band taldea Tolosako kaleetan barrena ariko dira, musika doinuak zabalduz. Izan ere, «blues

eta jazz doinuak kaleetara ateratzea» da jaialdiaren helburua.

Iñigo Martin musika aditu tolosarrak azaldu zituen, bestalde, Tolosan jardungo duten musikarien eta taldeen nondik norakoak. Guztiak ere «kalitate eta sona handikoak» direla iragarri, bereziki Paul Lamb & The King Snakes taldea azpimarratu zuen. «Dударik gabe aurtengo egitarauan izango den talde garrantzitsua da, blues munduan aski ezaguna». Maila handia izango da, iaz «baino jende gehiago» erakrri nahi dutelarik, beti ere «musika ona eskainiz». II. Tolosandblues jaialdia aurkezten duen kartelaren egilea, berriz, Jon Gaztañaga diseinatzaile tolosarra izan da.

Hona, banan-banan zehaztu-

ta, entzungai izango diren kontzertuak:

## HILAK 30, OSTIRALA

**Iñaki Salvador: Canciones.** Iñaki Salvadorrek, atzoko prentsurrekoan ere izan zena, jaialdia irekiko du, ekainaren 30ean, 23:00etan, Fronton kafetegian. Tolosandblues-en parte hartzea «ohore handia» dela adierazi zuen musikari donostiarrek. Laukote batekin ariko da Salvador, Ainara Ortega ahotsa jarriko duelarik. «Nire gazte garaian erreferente izan nituen kantautoreen bertsiok egingo ditugu, esaterako, Fito Paez, Silvio Rodriguez, Benito Lertxundi eta Mikel Laboa».

## UZTAILAK 1, LARUNBATA

**Stay Blues.** 20:00etan ariko da talde hau, Fronton kafetegian. Musikaren euskal panoraman ibilbide luzea duten bi blues musikarien topaketatik sortu zuten, Alvaro Fernandez harmonika eta gitarrak-jolea, eta Paul San Martin piano-jolea eta kantaria.

## Paul Lamb & The King Snakes.

«Apustu indartsuena» da honakoa; izan ere, 20 urte baino gehiago badira Paul Lamb harmonika-jolearen talde Europako blues musikaren erreferente dela. Plaza Berrian eskainiko dute emanaldia, 22:00etatik aurrera. Namb British Blues Hall of Fame-ko kide da, eta The King Snakes taldearekin 20 disko baino gehiago grabatu ditu; urtero, batez beste, 260 emanaldi inguru eskaintzen dituzte.

**Ñaco Goñi.** 00:30etik aurrera, Fronton kafetegian ariko da espainiarra. Hamalau urte zituela ikasketak utzi eta, ordutik, Blues musikari eskaintako bizi-tza du Goñik. Musika jaialdi garrantzitsuetan hartu du parte, Los Bluescavidas-ekin, Ille Hammalainen finlandiarrekin, Amar Sundry-rekin eta Zack Pratter-ekin, besteak beste. Donostiako jazzaldian ere jo zuen 1999an.

**Francisco Simon.** Goñiren ostean ariko da madrildarra, Fronton kafetegian. Musikaren gaineko makina bat ikasketa burutu ditu Simonek. 15 album baino gehiago grabatu zituen hainbat taldeekin eta blues musikako disko ugari ekoiztu ditu.

**Edu Big Hands.** Madrilen jaioa, Simonen ostean eskainiko du kontzertua. Gitarra-jole eta abeslaria da, eta kontzertuan dituen hainbat gaitasun erakutsiko ditu.

**Amama Luisa Big band.** Kale animazioa burutzea izango da talde honen helburua, 19:00etan hasi eta 22:00ak bitartean. 10 kidek osatzen dute taldea; duela sei urte sortu zuen Renato Valecruzek. Ordutik Euskal Herriko txokoetan aritu dira.

## UZTAILAK 2, IGANDEA

**Elkano Browning cream.** Mikel Azpiroz organo-joleak koordinatuta, hirukote honek bi aldereren baitan jotzen du: bata euskalduna, eta bestea, kontinente artekoa. 2006ko Tolosandblues Jaialdia itxiko dute Elkano Browning cream-ek, 20:00etan, Frontonen.

KIROLA ▶

## Usabalgo udako kirol eskaintza, zabalik

Ekintza asko antolatu dituzte heldu zein haurrentzat, eta jada eman daiteke izena

## ERREDAKZIOA

Usabal kirol eta aisiguneko antolatzaileek jakitera eman dutenaren arabera, udako prestatu duten ikastaro eskaintza zabalean izena emateko epea ireki dute.

Batetik, haurrei zuzendutako ikastaroak jarriko dituzte aukeran, futbol hobekuntzarako *stage*-a, kirol anitzak, batuka, cycling-a, igeriketa, urpekaritza, piraguismoa eta tenisa. Eta helduentzat, berriz, cycling-a, aerobika, acuagyma, yoga eta mantentzen diren gimnastika izango dira, besteak beste.

## TELEFONOAK ▶

### Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroako dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
  - ▶ Taxia: 670420
  - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrumendi egotitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

Alda ezazu zure etxetresna elektrikoa



Euskal energiaren erakundeko plan Renoverekin

75 euro abonatzeko dizkizugu ondorengo hauetan: garbigailua, baxera garbigailuak, konbiak, hozkailuak eta izozkailuak

Gudari, 7 • Tolosa • Tel./faksa: 943 65 46 50

**BELUR S.L.**  
garbitegi industrialak

Tel.: 943 67 60 15 • mug.: 618 211 856  
Okobio industrigunea, 51 • BELAUNTZA

## GIZARTEA ▶



Karramarro erraldoi batek bisita egin zien umetxoei, hauekako batzuk mozorrotuta zeudelarik. N. LATABURU



Umetxoek adi-adi jarraitu zioten antzerkiari. N. LATABURU

## Txantxoz, Errota berriari ongietorria

Iragan urrian ireki bazuten ere, atzo burutu zuten Haur Liburutegiaren inaugurazio ofizialeko jaia

NOELIA LATABURU

**H**erriko haurrentzako kultur gunea jolas gune ere bilakatu zen atzokan. Izan ere, iragan ikasturtearen hasieratik erabilgarri den arren, Errota Haur Liburutegiaren inaugurazio festa burutu zuten. Bertan, nola ez, etxeko txikienak izan ziren ardatza, eta ez zuten aspertzeko paradirik izan. Gehienek ere mozorroa jantzi eta, egun batez, ipuin bateko protagonista izan ziren. Txano Gorritxu, itsaslapurrak, Spiderman... guztientzat lekua izan zen festan.

Denetik izan zen adin guztientzako umeentzat. Festari ongietorria emateko, bertso antzerki bat izan zen ikusgai, *1, 2, 3... Inaxito*. Eguraldi txarra zela eta, Berdura plazan egin zuten; behin antzerkia amaitu

zenean, jolasen txanda heldu zen. Talde ezberdinak osatu zizuten, adinen arabera. Hala, 5 urte gorakoentzat *Zer ipuin da?* jolasa burutu zuten; 7 urte gorakoek, *Non dago Wally?* jolasarekin ederki igaro zuten. Haurtzat bigarren jolasik ere izan zen, *Zu ere liburuzain*, hain zuzen. Eta, azkenik, 11 urte gorakoek *Ibili bila... eta aurkitu* jolasarekin igaro zuten arratsaldea. Gurasoek ere adi-adi jarraitu zuten haien txikitxo mugimendu guztiak.

Galdutako indarrak berreskuratzeko-edo iluntze partera txokolatea eskaini zieten. Gisa honetara ofizialki inauguratu dute Errota Haur Liburutegi berritua; umeen kasuan udari ongietorria emateko ere baliatu zuten jaialdia, eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere.



## GORA SAN JUAN!

Ondo pasatzea, parte hartzea, dantzan eta saltoka ibiltzea. Jaiak hori dena dira, eta askoz gehiago ere bai.

## SANJOANAK ▶

## EGITARAUA ▶ EGUNEZ EGUN

Iragan asteburutik San Joan jaietako ekitaldietan bete-betean sartuta bagaude ere, gaur 19:00etan iragarriko du suziriak ofizialki festen hasiera. Hiru egunez herria kolorez jantziko dute herritarrek. Hona hemen egunez egun egitaraua:

## GAUR

**12:00.** Usabal kiroldegian Squash Txapelketaren finala, XVI. San Joan saria.

**17:00.** Txistularien kalejira, antzinako erronda bidetik barrena.

**17:30.** Trianguloan, Betizu *Betizuak izar artean* haur ikuskizuna

**18:00.** Iraunkorrak txaranga kalez kale ibiliko da, herria doinuz alaitzen.

**18:30.** Tolosako margolarien XL. erakusketaren inaugurazioa, Txinparta elkartearen.

**19:00.** Suziria, udaletxeko balkoitik, eta kanpai hotsa, jaien hasiera iragartzeko.

**19:00.** Erraldoiak eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroekin.

Irteera Plaza Zaharretik.

**19:30.** Udaltzatza Plaza Zaharretik abiatuko da Arrameleko San Joan kaperako bezperetan eta arrats otoitzetan parte hartzeko.

**19:30.** Berdura plazan, Isidro Larrañaga Akordeoi Orkestraren kontzertua.

**22:00.** San Joan sua, Andre Maria plazan, Udaltzatza bertan dela. Ondoren, Udaberri Dantzari Taldeak eta Tolosako Musika Bandak jardungo dute. San Joan zortzikoa jo ondoren, Musika Banda kalez kale ibiltzera abiatuko da. Jarraian, Tolosako Orfeoia abesbatzak kantatuko du.

**23:30.** Euskal Herria plazan musika eta dantza ikuskizuna, Los angeles de Mexico mariabiak, eta Tenochtitlan de Puebla dantza folkloriko konpainia.

**00:00.** Kontzertua, Plaza Berrian: The Uski's taldearen eskutik.



## BIHAR

**07:00.** Alkate Soinu Tolosako Txistulari Bandaren eskutik.

**08:30.** Diana, Tolosako Musika Bandarekin.

**08:45.** Diana, Tolosako eta Iruñeko txistulari bandekin.

**09:00.** Diana, Udal Musika Eskolako gaitariekin.

**09:00.** Txirrindulariak (irteera): 1. eta 2. mailako afizionatuen proba, XXXIV. Jose M<sup>a</sup> Anza Memoriala, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta.

**09:30.** Plaza Zaharretan eskopetariak eta Tolosako Musika Banda bilduko dira. Diana, desfilea eta, ondoren, San Joan Alardea, Gipuzkoako antzinako foru milizien oroimenez, Udaltzatza presidituta.

**10:00.** Beotibar pilotalekuan III. HITZA esku pilota Txapelketaren finalak.

**10:00.** Meza Nagusia, Santa Maria parrokian. Ondoren, prozesioa. Bertan parte hartuko dute Udaltzatza, kofradiek, Tolosako bordondantzariak eta erraldoiak; aldi berean, elkarteetako eskopetariak

ordenantzetako salbak botako dituzte betiko tokietan.

Elizkizunak amaitu ondoren, eskopetari konpainiak Foruen plazan (Trianguloan) bilduko dira berriro, bertan azken deskargak egiteko.

**11:00.** Goizez eta arratsalde (11:00-13:30 eta 16:00-19:30), haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan: gaztelu, ohe elastiko, tren txiki, bufalo amerikar, eta abar.

**11:45.** Txirrindulariak (amaiera): XXXIII. Jose M<sup>a</sup> Anza memoriala.

**12:00.** Usabal kiroldegian Padel Txapelketaren finala, San Joan saria.

**13:00.** Kontzertua, Plaza Berrian, Tolosako Musika Banda eta Tolosako eta Iruñeko udal txistulariekin.

**16:45.** Udaltzatza, Tolosako Musika Banda, txistulari, bordondantzari eta eskopetariak Plaza Zaharretik abiatuko dira, Santa Maria eliza nagusia bezperetara joateko. Ondoren, Arrameleko San Joan kaperan izango diren arrats otoitzetan parte hartuko dute. Elizkizuna amaitzean,

Udaltzatza, bordondantzariak, txistulariak, Musika Banda eta eskopetari konpainiak

Foruen plazan (Trianguloan) bilduko dira, bertan azken deskargak egiteko. Ondoren, Udaltzatza, Zumardi Handira joango da. Han ohiturazko auresku dantzatuko da.

**18:00.** Sortzez Garbia plazan haur ikuskizuna: Kiki, Koko eta Moko.

**19:30.** Zezen plazan, Zezen-errekortarien II. Lehiaketa adarpuntak moztu gabeko zezenekin.

**23:00.** Su festak, 1. bilduma; Pirotecnica Zaragozana.

**23:30.** Kontzertua Euskal Herria Plazan Pantxoa ta Peio kantarien eskutik.

**00:00.** Plaza Berrian disko jai: Abiba.

**ETZI, IGANDEA**

**09:00.** Diana, Udal Musika Eskolako gaitariekin.

**10:30.** Erraldoi eta buruhandiak, Tolosako Dultzaineroekin. Irteera, Plaza Zaharretik.

**11:00.** Goizez eta arratsalde (11:00-13:30 eta 16:00-19:30),

haur jaialdia, Sortzez Garbia plazan: gaztelu, ohe elastiko, tren txiki, bufalo amerikar, eta abar.

**11:00.** Bonberenea Txaranga kalez kale ibiliko da, herria doinuz alaitzen.

**11:30.** Trianguloan, Gipuzkoako eta Euskualdeko Toka Txapelketa, VIII. San Joan saria.

**12:00.** Tolosako Koadrilen Egunari hasiera emango zaio Plaza Zaharretan. Egun osoan: jokoak, txiste, irrintzi eta bertso lehiaketak, kalejira, dantzaldia... Eguna alaitzen txaranga, dultzaineroak eta trikitalariak ariko dira.

**12:00.** Ori ibaian batel estropadak (finalak).

**12:00.** Berazubín, tenisa. San Joan sariaren finalak.

**13:00.** Berdura plazan Ertzaintzaren Musika Bandaren kontzertua.

**14:30.** Plaza Berrian, koadrilen herri bazkaria. Ondoren Xanpetiki-dantza eta Larrain-dantza.

**16:00.** Txirrindulariak, Agustin Urkola 2. urteko kadeteen proba, Oriako Txirrindulari Eskolak antolatuta.

**17:00.** Plaza Zaharretik zezen-plazara, aurkezpen paseoa, Tolosako Musika Banda, agoazitxo eta zaldi mutilekin.

**18:00.** Zezenketa, zezen-plazan. Alcurruen ganadu ebeko sei zezen toreatuko dituzte Cesar Rinconek, Sebastian Castellak eta Javier Condek.

**18:00.** Berdura plazan haur ikuskizuna: *Zirko iluna*, Hortzmuga taldearen eskutik

**19:00.** Oriako Txaranga eta Mulambo perkusio taldea kalez kale ibiliko dira.

**19:00.** Triangulo plazan Herri Kirol saioa.

**19:30.** Los Angeles de Mexico mariachi taldearen kalejira San Frantzisko ibiltokian.

**23:00.** Su festak, 2. bilduma; A. Caballer.

**23:30.** Euskal Herria plazan dantza ikuskizuna Alurr Dantza Taldearen eskutik.

**00:00.** Plaza Berrian Pal Keli musika taldearen emanaldia.

**LASKORAIN IKASTOLA**

**SANJOANETAN** Buskaraz bizi

Usabal auzoa, 26 • TOLOSA  
Tel.: 943 69 71 22

www.laskorainkastola.net

**Dietetika eta Belardenda**

**ZAINBERRI**

Pablo Gorosabel, 6 • Tel.: 943 65 21 86 • 20400 TOLOSA

**XOILAN, S. L.**

Telf.-Faxa: 943 67 06 26  
659 04 57 65

Igarondo, 1-behea • TOLOSA

- garbiketa orokorrak lokal komertzialen mantenua
- bulegoak • fabrikak
- ikastetxeak etabar
- lur zoruei distira eman
- injekzio sistemak moketen garbiketa eta tapizien garbiketa orokorrean

**66**

Bokatak, Pintxoak eta Plater Konbinatuak, ugari.

-- Zetan irekita --

**jai zoriontsuak pasa!**

M.J. Iraola, 1 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 19 37

**IÑAKI SALBADOR ▶ DULTZAINA IRAKASLEA**

# «Sanjoanetan parte hartuz zerbait berezia sentitu izan dut»

Jai hauetan bere tartetxo izango du  
 Giroarte dultzaina taldeak;  
 «zaletasuna piztea» bilatzen du

**JOXEMI SAIZAR**

San Joan jai hauetan, urte osoan bezala, protagonismo berezia izango du Musika Eskolako Giroarte dultzaina taldeak. Diana eta kalejirekin, erraldoiekin eta dantza taldeekin erlazionatzen da instrumentu hau. Iñaki Salbador arduradunarekin egon da HITZA, bere lanaren berri izateko.

**Nolakoak dira sanjoanak?**

Nahiko serioak beste jaiekin konparatuz. Tradizio handikoa da eta ondo mantentzen da. Koadrilen Egunarekin giroa pixka bat aldatu da, giroa jarriz.

**Zer behar da festarako?**

Gogoia, umorea... Gauza handirik ez.

**Eta musika?**

Bai, noski. Baina berdin da zein musika mota. Denetik. Nik nahiago dut musika tradizionala.

**Iruñeko sanferminak erreferente dira jaien artean. Eta dultzainarien artean zer esanik ez.**

Bai. Askotan izan naiz jotzen eta berezia da. Sentimendua bertakoez eramaten dute. Hemen, prozesioan dantzatzeko eta dultzainero bezala parte hartzen ere zerbait berezia sentitu izan dut.

**Nongo jaietan aritzen zarete dultzaina jotzen?**

Batez ere hemen inguruan: Ibarra, Alegia, Irura, Villabo-

na... baina baita Ordizia, Zarautz, Deba, Barakaldoko topaketan ere... Italian ere izan da taldea, baina ni ez nintzen joan.

**Eta Tolosan?**

Sanjoanak alde batera utzita, Musikaria astean euskal soinu tresnen topaketa antolatzen dugu, Musika Bandarekin kontzertu berezia egiten dugu, Eguberrietako Olentzeroren etorreran eta Erregeen kabalagan, Inauterietan Sardinaren Hiletan, azoka berezi batzuetan, Santa Zezilia egunean...

**Kalerako instrumentua da dultzaina.**

Argi dago. Barrurako baino aproposago da, indar handia duelako. Orain Iruñeko Lakuntzatarrek ari dira aldaketa batzuk probatzen instrumentuan, bolumena jaitsi eta leku itxietarako egokitzeko.

**Zenbat ikasle duzu Eduardo Mokoroa musika eskolan?**

Hamabi. Kopuru mugatua daukat, beste irakasleek bezala. Titulazio ofizialik ez dago eta zaletasuna piztea bilatzen dut, derrigorrez maila batzuk gainditi behar izan gabe.

**Txikitian hasten al dira?**

Aurrena solfeo pixka bat ikasi behar da. Bederatzi urterekin hasitakoak badituz. Arnasketarako igeriketa egitea ona da. Nabari da igeri egiten dutenak, eta ikasleei aholkatzen diet.

**Beste euskal tresnak ez dira irakasten?**


JOXEMI SAIZAR

**FESTA**

«Gauza handirik ez da behar festarako: giroa, umorea... eta musika, noski; nik nahiago dut musika tradizionala»


**TALDEA**

«Taldea jotzeak asko jantzen du; binaka exijentzia handiagoa dago eta 3.aren beharra ikusten da»

Ez, eta eskaera badago, baina hemen atea ixita daukate irakasleon ordu kopurua mugatua dagoelako. Barakaldon, adibidez, alboka, trikitixa eta txalaparta ere irakasten dute.

**Nongo musika eskolatan irakasten da dultzaina?**

Hernani, Donostia, Pasaia, Errenteria, Iruñea, Lizarra...

**Zenbat urte daramazu musika eskolan?**

18, akademia zaharretik Gorosabelera pasatu zenetik. Proba batzuk gainditi behar izan nituen. Gero Eusko Jaurlaritzaren habilitazio probak egin nituen.

**Eta nola hasi zinen instrumentu honekin?**

Klarinetea ikasten hasi nintzen umetan, baina utzi egin nuen. Gero Udaberri taldean dantzari izan nintzen eta hango ba-

tzuk (Agirre, Zelaia, Garikano...) gure kontura hasi ginen dultzaina ikasten Iruñeko Lakuntzatarrei erositako. Gero serioago aritu nintzen beraien eskolan asteburuetan ordu asko sartuz. Materiala egiten ere ikasi nuen eta Lakuntzatarrekin jotzen ere aritu nintzen. Armonia ere ikasi nuen.

**Dultzainero talde desberdinen arteko kompetentzia handia izan da. Historian zehar dultzainak egiten artisauak izan dira, eta partiturak ere ez ziren elkarren artean pasatzen.**

Bai. Orain Zarauzko Keller enpresa sartu da, eta pastako oso dultzaina afinatuak egiten ditu. Taldean jotzeko —gu aritzen garen bezala— enpate hobea lortzen da. Bestalde, partitura

mundua gaur egun ere penagarria da. Batzuk beraietzat bakarrik gordetzen dituzte partiturak.

**Zein dira dultzainero onenak?**

Bakoitzak bere berezitasunak ditu. Ziekokoak dira oso onak orain.

**Egin duzun emanaldirik bereziena?**

Organoarekin Alegiako elizan. Musika Bandarekin askotan jo izan dugu. Topaketan alboka, trikitixa eta txalapartarekin batera jo genuen. Santa Zezilian gitarra eta bajoarekin edo marimbarekin jo izan dugu. Talde lana egiten saiatzen naiz. Asko jantzen du. Binaka jotzeak esijentzia handiagoa dauka eta, taldean ohituta, 3. ahotsaren beharra ikusten da.

**Marcel** ILSAMINDEKIDOKO ZAKAK  
 EDERGINTZA Santa Klara, 9  
 TOLOSA 943 671930

**SEGUROS BILBAO**  
**Zumardi**  
 aholkularitza integrala  
 San Joan festa ziorontsuak  
 opa dizkizu  
 Laskurain, 8 behea • TOLOSA  
 Tel.: 943 65 18 78 • Tel./Faxa: 943 65 18 77

**ZERBITZU BULEGOA**  
**AIXA**

**MATXINA** Sanjoanak ondo pasa!!  
 Etxekotresna elektrikoaren konponketa  
 Laskorain, 18 • TOLOSA • Tel.: 943 65 00 34

Gozotegia eta okindegia  
**ECEIZA**  
 Teilak eta Zigarriloak  
 Pablo Gorosabel, 34 • Tel.: 943 655161 • San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 651916 • TOLOSA

**Nominak - Kontabilitateak Zergak - Autonomoak**  
 Pablo Gorosabel, 4 - 1. esk  
 TOLOSA  
 Tel.: 943 65 03 03  
 Faxa: 943 65 22 22  
 mjhuarte@euskalnet.net

SAN JOANAK ▶

# Batelen hastapenei begirada



Tomas Odriozolak hainbat garaipen eskuratu zituen batel estropadetan 40. hamarkadan; garai haiek gogoratu ditu

JOXEMI SAIZAR

Ia 15 urtez geldirik egon ondoren, orain 3 urte berreskuratu zuen Ori ibaiak batelen inguruko festa. Lehen saiakera berezia izan zen, zaharren eta gazteen arteko lehiarekin; azken bi urteetan, berriz, indarra hartzen joan da, eta 20 batel inguru osatu dituzte eskualdeko



neska-mutilek. 60 urte baino gehiago egin behar da atzera, ordea. San Joan jaietan eginiko lehen batel estropadak gogora ekartzeko. Garai haiek ederki oroitzen ditu Tomas Odriozolak (Tolosa, 1922), lotura zuzena izan baitzuen batelekin.

«Zaletasuna bestelakoa zen garai haietan, handiagoa», dio tolosarrak. 1940. urtean, 18 urte zituela, irabazi zituen lehen estropadak Emendek batelarekin, eta 41ean, 42an, 44ean eta 45ean errepikatu zuen garaipena. Lehenengoan, esaterako, 665 pezeta eta bandera izan zen sari bezala jaso zutena. Garai haietako giroa azpimarratzen du Odriozolak: «Jendeak sutsuki jarraitzen zituen estropadak, garrantzi handia ematen zitzaizen, eta apustuak tarteko, pike handiak sortzen ziren, handiegia azkenetarako».

Garai desberdinak, eta ohi-turak eta jokamoldeak ere halakoak, noski. Entrenamenduetatik hasita; izan ere, Olarrainen entrenamendu gogorak egiten zituzten Odriozolak eta bere taldekideek. Horretarako, batela bizkar gainean hartuta eramaten zuten baserriatik ibaira eta ibaitik baserrira; «leher eginda etortzen ginen, baina baserrira bueltatzean etxeo andreak bina arraultz egosi eta

ardo botila jartzen zizkigun indar berritzeko; estropaden egunean, berriz, txuleta pres-tzen zigun, asmo onarekin, baina gure kalterako izango zen ziurrenik; lehengo garaietan hala izaten zen». Teknikoki ere, desberdin egiten zela dio Odriozolak; «arrauna atzean sartzen genuen, eta gero aurrera ekartzeko denbora asko pasatzen zen; orain, urrutiago jartzen dute, eta hala gutxiago nekakoto direla uste dut; hala eta guztiz ere, gure denborak ez lituzketela hobetuko iruditzen zait». 28 urterekin utzi zuen lehia tolosarrak, baina beste 10 edo 12 urtez prestaketa lanekin jarraitu zuen.

Eskarmentu handia du batel-estropaden inguruan, eta gogoeta eta kritika egiteko bide ere eman dio; izan ere, berak dioenez, «udalek eta erakundeek ez dute baloratzen kirol honen atzean egiten den lana, eta laguntza gehiago eman beharko lituzkete».

Egun, batel estropadetan ari diren neska-mutirik afizio handia dutela eta oso ondo egiten dutela dio. Herritar askok bezala, gertutik jarraitu zituen igandeko kanporaketak, eta finalerako favorito argiak ikusi zituen. Etzi, 12:00etatik aurrera ikusiko da bere aurreikuspena betetzen den ala ez.

Nafarroa etorb. 2  
TOLOSA  
Tel.: 943 65 47 95

**ZABALA**

**KAFEAK**

Nagusi plaza, 2  
ORDIZIA  
Tel.: 943 88 29 88

**'ZURE UMEEN DENDA'**

sehaskak • eguzkitakoak • segurtasun ahulkiak  
zakuak • maindireak • ohe estalkiak

**HAURDUNENTZAKO ARROPA • HAUR MODA 0-2 URTE**

**ONDO PASA SAN JOANAK!**

San Frantzisko, 39 • TOLOSA • Tel.: Faxes: 943 65 22 38

Sanjoanek ondo pasa!

**Café Iruña**

Pinxoak eta plater konbinatuak

Gorri plaza, z/g. Tolosa • Tel.: 943 01 65 65

**Gora Sanjoanek 2006!**

**TOLOSAGAIA**

Tolosako energia. Zurea  
Energia de Tolosa. Tu energia

Arostegieta, 18 • TOLOSA  
Tel.: 943 67 53 20 • Faxes: 943 67 55 11

**HERNIALDE JALETXEA**

leku garido goiberrak laskurain

**Ondo pasa Jaiak!**

martin jose iriola, 10 • tolosa  
tel.: 943 67 56 54

**FESTAK ONDO PASA!**

**TOLARGI**

Tolosako argia. Zurea  
La luz de Tolosa. Tu luz

Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA  
Tel. 943 65 00 16 • Faxes: 943 65 00 65  
Telf., matxurak: 610 44 00 88  
E-posta: tolargi@tolargi.com  
www.tolargi.com

943 67 56 54

**zute**

leku garido goiberrak laskurain

Santxo K...  
#8

SANJOANAK ▶

# Txuri eta urdin, tolosarron kolore

Aurtengo sanjoanek hainbat aldaketa barneratu dituzte

JOXEMI SAIZAR

Urtero berdin, baina urtero ezberdin. San Joan jaiek, usadioei jarraiki, egitarauan falta ezin diren ekitaldiak barneratzen dituzte; San Joan sua, eskopetarien prozesioa eta Koadrilen Eguna dira, besteak beste, adibide argiak. Baina urtez urte aldaketak ere izaten dira egitarauaren baitan, batzuk hobetze aldera, besteak beharrak hala eskatuta.

Esate baterako, txupinazoa aurtun ordubete beranduago jaurtiko dute, «atzetik dauden ekitaldiak ondo lotzeko». San Joan Egunean, berriz, erraldoiek eta buruhandiek irekiko dute prozesioa. Honekin, duela 40 urte inguru Korpus Egunean zegoen ohitura berreskuratzen nahi izan dute. Bestalde, Solana kaleko lanak direla eta, ibilbidea aldatuko da. Hala, Plaza Zaharretik abiatuta, Letxuga kalea zeharkatu eta Korreo kalean barrena igaroko da prozesioa, amaierako zatia berdina izango delarik.

Herri ekimen batek bultzatuta, tolosarrak txuri-urdinez janzteko proposamena kalera-  
tu dute. Bai, halaxe da: soinean



lazko prozesioan, alkatea. i. e.

galtza eta alkandora txuria eta lepoan zapi urdina. Argi dute, haatik, ez dela erraza ekimen honi indarrez ekitea; hori dela eta, etxeko txikienei animatu diete lehendabizi. Baina heldu-  
goei ere deia luzatu diete. Deia soilik ez-eta lanean ere jarri dira dagoeneko, zapiak salgai jarri dituztelarik, Tolosako Xirimi, Laier eta Orbela taber-  
tan.

argiketariak & igeltseroak  
iturkinak & pintoreak  
arotzak

eskaiolista & dekoratzaileak  
zoruak & leihoak  
altzariak & sukaldeak

**gremioen  
koordinazioa**

Nafarroa etorbidea, 12  
20400 Tolosa  
Tel.: 943 65 36 40

**Langile Abertzaleen  
Batzordeak**

*hator gorrira!*

*Gora euskal herria sozialista!*

*sanjoanak ondo pasa!*

**Gorosabel 29,1. - Tel.: 943 67 00 26 - 20.400 TOLOSA**

**aldama\_tapia**  
aholkulariak

Tel.: 943 65 03 75  
Faxa: 943 65 52 06

Foruen Etorbidea\_7 • 20400\_TOLOSA\_Gipuzkoa  
gtolosa@aldamatapia.com • www.aldamatapia.com

AHORRONET > GO

Aparteko  
tasa bat  
erakutsi nahi  
dizugu

**%5 U.T.B.  
lehenengo  
urtean**

**Hileroko aurrezki txikietarako  
Aurrezki Kontua**

- Gutxienezko diru-sarrera: 30€ hilean
- Gehienezko diru-sarrera: 300€ hilean

---

- Kuota hilero sartzen da AhorroNet-Go-n eta bezeroak edozein unetan aldatu dezake kopurua.
- Interesak urtean behin ordaintzen dira.
- Kuotarik sartzen ez bada, ez da komisiorik edo penalizaziorik izango.
- Urteko interesak: %5 (%5eko U.T.B.)
- Eskaintza 2006/07/31ra arte egongo da idarrear.
- Internetetik bakarrik, eta 18-30 urte bitarteko gazteentzat.

Euskadiko Kutxak gazteen alde egin duen apustua

UDAKO ORDUTEGI  
BERRIA!

Diseinua & Serigrafia  
Plaza zaharra 10  
Tolosa  
Tailerra  
943 67 49 90

**ASTEAZKENA** } 9:30 - 13:00  
**OSTEGUNA** } 17:00 - 20:00  
**OSTIRALA** }  
**LARUNBATA** } 9:30 - 13:30

Nafarroa etorb, 11 • Tel.: 943 65 12 64

O  
S  
K  
I

Emeterio Arrese, 5  
Tel.: 943 65 56 21

**JANTZIAK**

**OINETAKOAK**

**TOLOSA**

**GAZTEA**

**AITZOL**

UDAL EUSKALTEGIA

“Nola beroan freskura,  
hala euskara eskura”

**TOLOSAKO UDALA  
EUSKARA BATZORDEA**

PILOTA ▶

# Azken pilotakadak, III. HITZA Txapelketan

Gaur eta bihar jokatuko dira txapelketako zazpi finalak, Albizturren txikienenak eta Tolosan kadeteetatik gorakoena



Iraolak eta Galartzak kadeteen finalaurreko partida jokatuta zuten. n. u.

## NEREA URBIZU

Gaur eta bihar jokatuko dituzte III. HITZA Pilota Txapelketako finalak, maila guztietan. Albizturren hiru maila baxuenetakoak ikusi ahal izango dira: benjaminak, alebinak eta infantilak. Tolosako Beotibar pilotalekuan, aldiz, kadeteak, jubeni-

lak, etorkizunekoak eta bereziak izango dira. Gaurko norgehiagokak 19:30ean hasiko dira Albizturren. Biharkoak, bestalde, 10:00etan, Beotibarran.

Eskualdeko hainbat jokalarik lortu dute finalera iristea: amezketarrak, lizartzarrak, bidaniarrak, tolosarrak, leitza-

rrak eta alkizarrak. Eskualdeko bederatzi pilota eskolek hartu dute parte txapelketan, eta finalera horietatik sei pasatu dira. Ezin esan inguruko pilota maila txarra denik.

Nafar asko izango dira aretuen artean: Huartekoak, Irurtzungoak eta Baztan aldekoak, besteak beste.

Denera, 312 pilotari aritu dira, inoiz baino pilotari gehiago txapelketa honetan. Zazpi mailakoak izan dira, eta denetan binakakoa izan da, kadeteen mailakoa izan ezik, eskuz banaka jokatu baitute.

## Finaleko pilota eskolak

Benjaminen mailan Zazpi-Iturrikoak eta Berako Gure Txokoa izango dira. Alebinetan, Zazpi-Iturri eta Urretxuko eskola. Infantilen mailan, Zizurkilgo eskola, Leitzako Aurreraren kontra. Kadeteetan, bi nafar ariko dira: Aldabide eskolako (Irurtzun) eta Txarutakoa (Saldias). Jubeniletan, Aurrera-Saiaz eta Huarte. Etorkizunekoetan, Ilunpe eta Atxarte. Azkenik, nagusietan, Aurrera-Saiaz eta Añorga lehiatuko dira.

## FINALISTAK ▶

### Benjaminak.



Sagastume-Altuna.



Tellebea-Mitxelena.

### Alebinak.



Jaka-Otamendi.



Imaz-Erostarbe.

### Infantilak.



Zinkunegi-Urbieta.



Olano-Jaunarena.

### Kadeteak.



Galartza.



Urrutia.

### Jubenilak.



Galarraga-Ojuel.



Garralda-Beroiz.

### Etorkizunekoak.



Larrañaga-Aranburu.



R. Uriarte-Iza.

### Nagusiak.



Belloso-Uharte.



Errozenea-Apraiz.

"Xirimiri" **Ondo ibili!!**  
Txokolategia  
Errementalari kalea, 40  
20400 Tolosa  
Telef. 943 67 52 23

**Sam** Kartazalak  
Poltsak  
Usabal auzoa, 126 • 20400 TOLOSA  
Tel.: 943 67 40 00 • Faxes. 943 67 55 44 • sam@sam-sobres.com

**Tolosalde** BUS S.L. Festa onak  
pasa Sanjoanetan!  
Ibilaldiak • Ezteiak Agurafariak • Ikastetxeak Kirol taldeak  
Tel eta faxes: 943 650621 • mug.: 619 723 819 • Donostia Etoib, 9 • TOLOSA

**ONDO PASA JAIK!**  
Harategi-Urriategia  
Tel.: 943 65 07 84  
Nafarroa etorb. 17  
TOLOSA

**KLISK**  
Argazki Erreportaiak  
Argazki digitalak  
0,19 eurotik  
0,32 eurotara  
San Franzisko, 6  
943 11 85 45 • TOLOSA

**KIKATZA**  
PINTXOAK - BOKATAK  
ANOAK  
PLATER KONBINATUAK  
Plaza Berria, 6 • 20400 Tolosa  
Tel.: 943 67 49 13



ASTEASU ▶ ARAU SUBSIDIARIOAK

IMANOL GARCIA

Asteasuko arau subsidiarioak onartzearen prozesua aurrera doa. 2005eko maiatzean aurre-irakina onartu zuen Udalak, eta aurreko hilean hasierako onarpena eman zitzaion. Bi dokumentuen artean zenbait ezberdintasun daude, baina «irizpide nagusiak mantendu» egin direla azaldu dute Udalek: «Alde Zaharra oinezkoentzat jartzea, bide perimetrala egitea, aparkalekuak gehitzea eta bidegorria».

Aldaketek dagokienez, etxebizitza gutxiago egingo dira, zerrategia ez baita lekuz aldatuko eta Elizmendi auzoan beste aldaketa batzuk egingo direlako. Igerileku irekiak Elizmendi auzoan ez dira joango, eta behin betiko kokapena Asteasuko sahiesbidea eta Usarrabi errekararen artean dauden terenoetan izango da. Lamiategi eremuan ere aldaketa nabarmenak izango dira, Ipuomamuaz gain, etxebizitzak ere egingo direlako bertan.

Elizmendi auzoak ere bigarren dokumentuan berrietasunak ditu. Batez ere, Haur Eskolak eragin ditu. Izan ere, gero eta haur gehiago daude herrian. Kanpotik bikote asko etorri dira eta, bestalde, bertan jaiotakoak beste urte batzuetan baino haur gehiago izaten ari dira. Hazkundera dela eta, dagoeneko txikiak den Haur Eskola handitu beharra dagoela ikusi da.

Esan bezala, hasierako onarpena egin du Udalak, eta orain uztailaren 7a arte dago epea alegazioak aurkezteko. Alegazio horiek aztertu ondoren, behin-behineko onarpena egingo du Udalak eta dokumentu hori Foru Aldundira bidaliko dute bertan ere onarpena jasotzeko. Ondoren zehazten ditugu arau subsidiarioen berrikusapenaren hasierako onarpenen nola gelditu diren atal nagusienak.

**Alde Zaharra oinezkoentzat.** Kale Nagusia, bi plazak eta Obaba kalea Ibarrazpi pasealekuraino oinezkoentza egoki-

# Arau subsidiarioen berrikusapenean zenbait aldaketa

Hasierako onarpenaren dokumentua onartu du Udalak, eta interesatuek alegazioak egin ditzakete uztailaren 7ra arte



Asteasuko herrigunearen zati bat eta Elizmendi auzoaren ikuspegia. I. GARCIA

tzean planteatzen da, herriaren erdiguneko espazioak herritarrei itzultzeko.

**Bide perimetrala herrigunear.** Herriguneko espazioak pasadizoko trafikoaren zortasunetik libratzeko, Kale Berriaren eta Eliz kalearen artean kale berri bat eraikitzea planteatzen dute, Iturri kalea, Ibergain eta, zerrategitik barrena, Larraulgo bidea lotuko dituen.

**Aparkalekuak.** Bide perimetralaren inguruan 280 bat aparkaleku berri aurreikusi dituzte.

**Bidegorria.** Erdigunetik hasi eta industrialdearen atzealde-

tik barrena Zizurkileraino, eta hortik Elbarrena auzogunera-iraino eta Villabonako herrigunera-iraino.

**Etxebizitzak.** Eskaintza udalerriko biztanleek, aurreikuspen guztien arabera, egingo duten eskaria aintzat hartuz egina dago. Asko babes ofizialekoak eta tasatuak izango dira.

**Ipuomamua.** Lamiategiko eremuan kokatuko da, eta udalerriz gaineko ekipamendu kulturala izango da.

**Igerileku irekiak.** Behin betiko kokapena Asteasuko sahiesbidea eta Usarrabi errekararen arteko lur-eremuan izango da.

**'Maravillas' berreskuratzea.** Proposatzen direnak: Kale Berria, Eliz kalea eta Aginazpi baserriaren artean kale berri bat irekitzea, etxebizitza berriak, aparkaleku ugari sotoetan eta lur gainean, txabolak kentzea, Kale Nagusiko etxeen atzekaldeko baratzeen aurrealdea arautzea, Zapatarinea eraikinararen ordean eraikin berri bat

egitea eta Opin erreka berreskuratzea.

**Zerrategiko area.** Errekabailarako errepidea eta Larraulgo errepidea lotuko dituen kale bat irekitzea 2007n. Egungo zerrategiaren aktibitatea mantentzea. Ez dituzte etxebizitza berriak eraikiko.

**Elizmendi.** 2-6 urteko Haur Hezkuntzarako eraikina handitzea edo bere tokian eraikin berria eta handiagoa egitea; 73 aparkaleku plaza egitea eskolaren ondoan; elkarte bat eraikitzea; Haur Eskolaren ondoan parke bat eta aparkalekuak; Goizeguzki etxea finkaraztea; Zelaieta etxea eraistea eta berreskuratzea, lurpeko aparkalekuak, etxebizitza berriak eta lurgaineko 20 plaza aparkaleku ingurutako biztanleentzat; Elorrieta eta Arizti baserrien artean dagoen bihurtzea hobetzea eta zabaltzea; Idogarate baserriaren ondoan aurreikusita zeuden etxebizitzak kendu egin dituzte.

**Industriagunea.** Ez da planteatzen industriagunea berririk, eta egun dagoenaren zenbait arazo konpontzea da asmoa.

**Agroaldea.** Agroaldeko instalazioei eustea planteatzen da, herriko industriagunea eta hiri-gunea banatzen dituen zona gisa.

**Landa eremua.** Baserriak berritzea eta birgaitzea lehenetsiko dute; nekazaritza ustiategi berria eraikitzeko gutxieneko partzela bi hektareakoa izango da, eta ez dute onartuko labore unitate minimoa baino txikiagoko partzelazioak. Unitate hori hektarea batekoa da Gipuzkoan.

iragarki laburrak ▶

<p><b>LANA</b> <b>Tabernaria.</b> Neska euskalduna behar da 4 orduz lan egiteko, Tolosaldean. Eskarmentua. 635 74 52 91. <b>Tabernaria.</b> Villabonako taberna</p>	<p>baterako neska euskalduna behar da, 15:30etik 22:30era. Igandeetan jai. 650 48 79 34. <b>Haur-zaintzailea.</b> Neska bat behar da goizez 2 haur zaintzeko. 607 97 31 34.</p>
---	---

**ZABALA DESGUAZEA**  
Beotibar Industriagunea, 18 BELAUNTZA  
Tel./Faxa: 943 67 17 90  
696 593 347

**EUSKAL TONBOLA**  
Euro baten truke aldiak sartu!

Tonbolen onak! Gurekin sartu tonbolen munduan!

**IBARRAKO UZTURPE IKASTOLAK**  
**2 LANGILE BEHAR DITU**

1. Haur Hezkuntzako irakaslea. EGA agiria.  
▶ Baloetsiko da: Psikomotrizitate ikastaroak

2. Jangelarako euskaraz dakien sukaldaria  
▶ Baloetsiko da: Sukaldari titulua Esperientzia ikastetxeetan

Curriculumak jasotzeko epea: ekainaren 28a  
UZTURPE IKASTOLA. Egialde, 2- 20400 Ibarra  
Tel.:943 67 12 99 • Ibarra@ikastola.net

## GUTUN@K ▶

▶ izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

## Araxes-eko langileei gutuna

2006 ko ekainaren 17an HITZAN, Araxeseko langileengan ezjakintasuna nagusi delaren berria agertu ondoren, azalpen bat eman beharrean aurkitzen naiz.

Uste dut ondoren datozen gertaeren ezagutzapean zaudetela:

2005eko apirilean, Celulosas Araxes S. A. bigarren makina baten inbertsioa zela eta, krisi finantzario batean aurkitzen zen. Honek sozietaren jabetzan aldaketa bat ekarri zuen, arazo finantzario larri horiei soluzio bat emateko eta enpresaren jardura bideratzen.

Bazkide berriek maiatzaren 15ean kapital soziala 600.000,00 eurotan (100 milioi pezeta) handitu zuten. Orduetik hona diru kantitate garrantzitsuak jartzen jarraitu dugu.

Makina berria eginiko inbertsioa zoritarreko gertatu zen; kostuak aurrekontua bikoiztu egin baitzuten eta makinaren produzioa irailean gelditu beharrean aurkitu bainkinen nahi genuen produkturik atera gabe.

Gure produktuen merkatua krisian dago. Prezioak 2004ko erditik ona erortzen ari dira.

Produktibitatean lortutako hobekuntzak ez dira nahikoak

izan lehengai eta energian (gasaren prezioak urtebetean bikoizteraino iritsi da) egondako igoserak jasateko.

Honek guztiak azken 20 hila-beteetan galera handiak sortu ditu, eta zegoen ahaltsun finantzarioa gehituta, poiektua bidera ezina egin du.

2006ko maiatzaren 22an ekoizpena gelditu beharrean aurkitu ginen, elektrizitate eta gasaren hornitzaileak ordaindu ezagatik beraien erabilpena moztu baitziguten.

2006ko maiatzaren 23an, zuen ordezkariekin bilera bat izan genuen, non zegoen stock-a eskeini genizuen ahal zen neurrian zuen finikito eta kalte ordainak konpentsatzeko. Erantzuna bi egunen barruan jasoko gurela esan ziguten.

2006ko maiatzaren 24an, eskaintzaren erantzunik jaso gabe, 35.000,00 euroz jabetu zineten, inolako soldata zorrik eduki gabe.

Momento honetatik aurrera, enpresako jardura galarazi zenuten; sozietateko administrazioaile bakarrari agresiboki lantokitik bota; korreoa lapurtu; administrazioaile, bazkide eta beren familiartekoen aurka mehatxu, difamazio, kalumnia eta irainez beteriko kanpaina hasi zenuten eta beraien ondasunei kalte egin.

Egoera honek kalte konponezinak sortu ditu pertsonal

nahiz materialak (stock-a hondatzen dago eta subproduktu bat bezala saldu beharko da. Bezeroek ez dute ordaintzen).

Azalpenak eta erantzukizunak eskatzen dituzue. Aurrera atera ez den proiektu batean gure dirua arriskatu izanaren erantzule gara, azken 13 hila-betez luzatu dena, zuek soldata jasotzea lortuz. Ezin dudana azaldu, bestalde, dirua, abalak, konpromiso eta kontrapartida gabeko dedikazioa jarri duten pertsonen lapurrak eta beste zenbait erokeri deitu izana.

AGUSTIN REKALDE ▶ TOLOSA

## Batasunaren batzarra Ertzaintzak debekaturik

2006ko ekainak 21, asteazkena, iluntzeko 20:30ak.

Tolosako Batasuna iragarritako batzarra burutzen ari da Tolosako Kultur Etxean.

Bertan, 30 herritar inguru, egungo egoera politikoa aztertzen eta datozen hilabetetarako lan ildoak zehazten.

Bertan, Euskal Herrian piztu den itxaropen giroaz, irekitzear dagoen bake prozesuaz, azken hilabetetan eman diren urratsetat, lorpenetat, erasoetat, erantzunaz, ezker abertzaleak

nazioartean jasotzen ari den babesaz...

Eta bat-batean, aretoko gela irekitzen da eta espainolez, batzarra debekaturik dagoela adierazten digute ertzainek. Bilkurarekin aurrera jarraitzen badugu prozedura judiziala martxan jarriko dutela mehatxatzen dute.

PNVk zuzentzen duen indar polizialak batzarra bertan behera utziarazi digu:

Ez al da garai hauentzat jarrerara kezkarria?

Herritar guztion eskubide zibil eta politikoak errespetatzen ez diren bitartean, hemen ezin dugu bake prozesuaz aritu. PSOE jakin behar du keinuak alde batek bakarrik ematen dituen bitartean hemen ezin dela eszenatoki berri bat eraiki: lehengoan gaude. Noiz arte? Noiz onartu behar dute Euskal Herriak, herri bat den neurrian, hitza eta erabakitzeko eskubidea izan behar duela?

Jarrera hauek aldaketa behar dute. Herritar guztiok dugu hitz egiteko, eztabaidatzeko eta biltzeko eskubidea. Zergatik guri eskubide hau ukatu?

PNVri galdera batzuk luzatu nahi dizkiogu:

Hau al da bake prozesuari egiten diozuen ekarpena?

Zein interes ezkutu dituzue Euskal Herriko egoerak bere horretan jarraitzeko?

Ez al du Euskal Herrian

sortu den egoera politikoa berria aprobetxatzeak merezi?

Aukera hau ere galtzen utzi behar al dugu?

Noiz arte ikusi behar zaituztegu PSOEn aginduetara, morroi lanean?

Zuen jarrera inposatzaileak ez digu aldaketarako gogo handirik duzuenik adierazten eta zinez pena ematen digu horretaz ohartzeak.

Bestalde, herritarrei zuen jarrera argitu beharko diozue; izan ere, Tolosan batzarra eragozteko agindua eman zuen egun berdinean Josu Jon Imaz Batasunako kideekin bilduta baitzegoen. Nola esplikatu behar duzue zuen joko bikoitza?

Ekainak 30. Konzentrazioa-ko deia.

Ez da posible eraso berri honen aurrean besoak gurutzaturik geratzea. Horregatik, eskandalu honen aurrean jarrera aldaketa bat eskatzeko, herritar guztiak bilkurrara deitzen ditugu. Datorren asteko ostiralean, hilak 30, 20:00etan, Trianguloan burutuko den konzentrazioan *Eskubide guztiak herritar guztiontzat* dioen pankarta eutsiko dugu. Lelo honekin bat datorren oro eta guztiok bilerak egiteko eskubidea badugula pentsatzen duen oro gonbidatzen dugu bertan parte hartzera.

IÑAKI ELDUAIEN ETA KOLDO MAIZ (TOLOSAKO BATASUNAREN IZENEAN) ▶ TOLOSA

## TOLOSA ▶ GIZARTEA

## Gaurtik komun publikoa erabilgarri

Foru etorbideko parkean egongo da, egunero 08:30etik 21:00etara bitarte

## NEREA URBIZU

Tolosako Foruen etorbidean komun publikoa jarri dute, haur parkearen ondoan. Gaurtik aurrera izango da hura erabiltzeko aukera.

Prefabrikatutako kabina itxura du kanpotik, eta denek erabiltzeko aukera ematen du; hau da, mugikortasun arazoak dituztenentzat ere pentsatuta dago.

Altzairu herdoilgaitzez dago egina tapa, eta erabilera bakotzaren ondoren bakarrik gar-

bitu egiten da. Eskuak garbitzeko eta baita lehortzeko konketa ere dauka komun honek. Aurrerantzean, haur-oihalak umeei aldatzeko espazio bat ere egokituko dute.

08:30etik 21:00ak arte egongo du zerbitzua egunero. Gehienez ere 15 minutuz erabili ahal izango da: denbora hori pasatuz gero alarmatxo batek abixua ematen du. Atean seguritate botoi bat sakatuz aktibatzen da, eta ateratzeko momenturako ere botoia sakatu behar da.



Komuna haur parkearen ondoan dago kokatuta. IMANOL GARCIA

Tamainaz eroso da: 3,53 metroko luzera dauka, eta 1,75 metro zabaleran.

Automatismoei dagokionez, barruan inor egonez gero sumatu egiten du, eta atea baka-

rrik itxi egiten da, ateratzeko orduan bezala. Konketa eta komuna egunero garbitu egongo dira, eta baita ikuskatu ere. Materiala ere egunero berria jarriko dute.

## BALIARRAIN ▶

## Jose Antonio Jauregiren oroimenez, ibilaldia

## N. URBIZU

Duela bi urte Jose Antonio Jauregi desagertu zela eta, bere oroimenez ibilaldia egingo dute etzi, plazatik 10:00etan aterata. San Juan iturrira ailegatzean, lore sorta bat jarriko diote. Ibilaldiak Altzagarateraino jarraituko du, eta han hamaiketako egingo dute, bakoitzak berea ordainduz. Dena dela, jai batzordeak edaria, kafea eta pastak jarriko ditu.

## Gaur, San Joan sua

Gaur, 20:00etan, zahagiardoa izango da, eta ondoren San Joan sua piztuko dute. Aurten, Andra Mari festetako kamisetak egin dituzte; gaur salgai eta zahagiardoa ikusgai jarriko dituzte.

## LEITZA ▶

**Pilota eskolako kideak hainbat finaletan dira**

Leitzaldeko pilota eskolako hainbat partaide, hango eta heengo pilota txapelketetan azken urratsetaraino ailegatu dira. Hala, Urretxuko pilota txapelketako buruz buruko finala jokatu du Aritz Sagastibeltzak, etzi, 10:30ean, Txarutako Madariagaren aurka. Egun eta ordu berean, baina Urretxuko txapelketan, binakako finalerako partida jokatu dute Aurrerako eskolako Migel Olanok eta Jon Zabaletak.

## LEITZA ▶

**Azken eskola egunean, jostaketak nagusi**

Erleta eskolako ikasleek atzo zuten atzeneko eskola eguna eta liburuak alde batera utzita, jostaketa nagusitu zen atarian, han eta baita ttikienak ikasten aritzen diren Agrikolan ere. Joko desberdinak egin zituzten goizean zehar, sailka jarrita: sokatira, zaku-saltoa, aulki-jokoa, lasterketa... Ondoren, gurasoek eramanadako jaki goxoekin hamaiketako egin zuten, oporraldiaren hasiera gogotsu hartuz.



Esate baterako, ttikienak lasterka-apustuan —irudian—, soskor biltzen, aulki jokoan ibili ziren. JAIONE ASTIBIA

## LEITZA ▶

**Plazaolako azalen erakusketa etzi egingen da**

Lehiaketan parte hartu duten guztien artean ikusleek aukeratu dute

J. ASTIBIA

Etzi eguerdiartean egingen dute Plazaola aldizkariako azalen lehiaketan parte hartu duten azalen proposamenen erakusketa, Aurrera elkartean bertan.

16 urtetik beherakoen eta gorakoen artean aukeratu dute azala, erakusketa ikustera bertaratzen diren lagunek, bozketa bidez: helduen sailean, bozka gehien eskuaritzen dituen kartela izanen da aldizkariako azala, eta egileak 150 euroko diru saria jasoko du, San Tiburtzio bezperan, txupinazoaren ondoren batzar aretoan egingen den ekitalditxoan. Gaztetxo-en saileko irabazleak ere sari bat jasoko omen du.

## ARESO ▶ INGURUMENA

**Astomela-Matxain erreka garbituko dute aurtengo udan ere**

Ingurumenaren zainketari dagokion ekimen hau bi hilabete barru egingen badute ere, izena orain eman behar da

## ERREDAKZIOA

Ingurumenaren aldeko borondatezko lanean ariko dira aurtengo udan ere aresoarrak: Astomela-Matxain erreka eta bere inguruak garbituko dituzte hurrengo hilabeteetan.

Bertako Udaletik jakitera eman dutenez, aurtengo «Ingurumenaren alde borondatezko lana egiteko jardunaldiak» izeneko programan parte hartuko dute, «Nafarroako Kutxako Fundazioak diruz lagunduta», zehaztu dutenez.

Iaz egin bezala, aurtengo Gorriti aldetik sartu eta herriko landan barrena aldenbeste igarotzen den Astomela-Matxain erreka garbitzeko asmoa dute, «errekako zaborrak eta

plastikoak» bilduko dituzte eta «bide batez errekararen inguruak ere garbituz».

## Auzolanean

Eginkizun hauetan guztietan, herritarrek parte hartuko dute, ingurumenari arreta eskaintzeaz gain, ekimen honen helburu garrantzitsua baita «herritarrengan borondatezko lana sustatzea». Hala, herriko Udalak «ahalik eta herritar gehienak parte har» dezaten dei egin du. Ekimen honetan partaide izan nahi dutenek «lehenbailehen» udaletxean izena emateko eskatu dute.

Ingurumenaren aldeko auzolan hau bi egunetarako antolatuko dute, abuztuaren 26rako

eta irailaren 2rako, zehaztu dutenez. «Langintza horretarako beharrezko tresna eta materialaren horniketaz antolatzailea», Udala, beraz, arduratuko omen da. Bi egun horietako lanaldiek, 9 eta 14 ordu bitarteko iraupena izanen dutela ere zehaztu dute; ondoren, herriak auzolanean parte hartu duten herritarrei otordua emanen dielarik.

Iaz hasi ziren ekimen honekin herrian eta orduan adierazi zutenek, «arrakastatsu» suertatu zen ekimena; izan ere, herritar frankok parte hartu zuen aitatutako erreka horren garbiketan eta «eraginkorra» ere izan zen, zabor, plastiko, burni, txapa... eta bestez hainbat traktorekada bete zituzten eta.

## LEITZA ▶

**Ustezko sexu erasoengatik epaitu dute leitzar bat**

J.A. B. C., 54 urteko gizonetza, Burlatako institutu bateko irakasle da

## ERREDAKZIOA

Atzo iturri desberdinetan argitaratu zenez, «Leitzakoa den J.A. B. C. 54 urteko gizonetza» herenegun epaitu omen zuten Iruñean, ustez, «14 urteko hiru ikasleri sexu erasoak egin izana leporatuta». Beti ere iturri horien ariara, Burlatako Askatasuna institutuko irakasle da gizaseme hori eta epaiketa horren kausak gertatutakoan, ikasle haien tutore omen zen.

Epaketan zehar, leporatutakoak ukatu egin omen zituen berak. Fiskalak, «irakaskuntzarako sei urteko inhabilitazio berezia eta 4.320 euroko isuna» eskatu omen zituen; defentsak, berriz, «absoluzioa».

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan  
50.000 eixetara**

HITZA guztietan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

## hilberria ▶

**Jose Luis Artetxe Odriozola  
'Saka'**

*Aizarnan zenuen bihotza  
Zestoan bizi arren,  
zure nahiak betez  
bertan hartuko duzu atseden*

**Lorearen lagunak**

ZESTOA, 2006ko ekainaren 23an

## hilberria ▶

**Jose Luis Artetxe Odriozola  
'Saka'**

*Bihotzean min dugu  
min etsia,  
zure bihotz samurra  
ezustean ebatsia.  
Gure oroitzak izan bidelagun  
BETIKO BIZIAN.  
Iruneren lagunak*

ELIZKIZUNAK: gaur, hilak 23, Aizarnako elizan,  
arratsaldeko 19:00etan

ZESTOA, 2006ko ekainaren 23an

oharra ▶ gorpua Zumaiako tanatorioan dago.

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Alegia.** Odol-ematea. 19:00etatik 21:00etara, mediku etxean.  
**Ikaztegieta.** Odol-ematea. 19:00etatik 21:00etara, kiroldegian.  
**Tolosa.** Txinparta elkartearen pintura lehiaketa, Felix Yarzaren omenez. Gaur inauguratuko dute elkartean, 18:30ean, eta ondoren sari banaketa egingo dute.  
**Tolosa.** Uztailaren 4an Donostiako Santa Klara irlara irteera antolatuta du Gazte Topaguneak.  
**Zizurkil.** San Joan suan dantza egiteko entseguak. 18:00etatik 19:00etara, Atxulondon.

**ERAKUSKETAK**

**Hernialde.** Gregorio Lopezen margolanak, Ostatuan ikusgai.  
**Tolosa. Aterpeak.** Miguel Angel Oriberen eskultura erakusketa. Uztailaren 1a arte, Aranburu Jauregian.  
**Tolosa.** Kultur tailerretako ikasleen erakusketa. Uztailaren 1a arte, Aranburu Jauregian.  
**Tolosa.** Jesus Lopez Zulueta margolanak, Saikin tabernan.  
**Tolosa.** Yolanda Artolaren margolanak, Fronton kafetegian.  
**Zizurkil.** Eskultura erakusketa, Olentzon.

**MUSIKA**

**Tolosa.** Kode eta Agoraphobia taldeak. 22:30ean, Otsabi elkartean (Igarondoren alboan). Doan.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.  
**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren 52. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre irrati**  
**(107.5, 101.2 FM)**  
 11:00-14:00. Tolosaldeko ahotsa magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzairen errepassoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...  
 21:00-22:00. Gora Euscadi Txistulari.  
 21:00-23:00. Gau bero.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Euskara jokoan ez jartzeko

**TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶ Euskal Tonbola «eraberritua» aurkeztu du Kontseiluak, «euskararen normalizazioan urrats sendoak ematen jarraitzeko»**



Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluko kideak, Euskal Tonbola berriaren aurkezpenean. HITZA

**ERREDAKZIOA**

**E**uskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak Euskal Tonbola berria aurkeztu du. 2005ean abian jarritako ekimena berriro martxan jarri du, baina eraberrituta, «azalez eta mamiz».

Euskal Herri osoan izango da Euskal Tonbola; Tolosaldeari eta Leitzaleari ere, hortaz, egingo dio bisita. Ekainean eta uztailaren Gipuzkoa osoan salgai egongo da, irailean Bizkaian eta ondoren Araban, Iparraldean eta Nafarroan. «Guztira, 300 herritan eta 1.700 tabernatan izango da boletoa eskuratzeko aukera. Pixkanaka zure herrira ere gerturatuko

gara», adierazi du Kontseiluko finantzaburuak, Iker Gomez de Segurak.

Itxura modernoa du 2006ko Euskal Tonbola berria. Barietatea ere («zaugarri funtsezkoenetakoa») izango du: «Sari aukera zabala prestatu dugu, 30 sari desberdin baino gehiagorekin. Teknologia berriekin bat egiten dutenak ere egongo dira aukeran, edonon filmak ikusteko DVD eramangarriak, musika eta irratia entzuteko MP3ak, edonora nola joan azaltzen duten GPSak edo etxerako DVD irakurgailuak, besteak beste. Eta ukigarriak diren sariez gain, Arzak jatetxe eza-gunean afariak bi lagunentzat edo asteburuak Pirinioetako

landetxeetan zortzi laguneko koadrilentzat ere banatuko ditugu».

Euskal Tonbolaren txartelak tabernetan erosi ahal izango dira nagusiki, «baina aurtan bestelako saltokietara ere zabaldu dugu, okindegiak edota janari dendak, kasu».

Euro bakar baten truke saltzen da txartel bakoitza, eta hazkatu besterik ez da egin behar ezkututzen duen saria zein den ikusteko. Sari gehienak, gainera, txartela erosi den tokian bertan jaso ahal izango dira.

«Euskal Tonbolan jokatzuz, euskara 'jokoan ez jartzen' lagunduko dute, gainera, erosleek». Izan ere, egitasmo honeta-

rik lortutako etekina «euskararen normalizazioan urrats berriri eta sendoak ematen jarraitzeko» erabiliko du Kontseiluak.

Iaz abiatu zen herriz herriko bere ibilbidea Euskal Tonbola. «Euskararekiko aldekatuna eta jokoa elkar hartuta, egitasmo berritzailea eta auzarta» plazaratu zuen horrekin Kontseiluak. Eta herritarrek apustuari heldu zioten; «nola gainera, 100.000 sari baino gehiago banatzeraino». Esperientziaren harrera bikainak eta arrakastak ekarri dute Euskal Tonbolaren berrabiatzea, nobedadez gainezka.

«Egin zure apustua, esan bai euskarari eta zorte on!».

**Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...**

**hitza**  
agurren tarte

**Udaberriko sustapena**  
 Apirilean, maiatzean eta ekainean bakarrik.

8 geranioz osaturiko erretilua **14€**

“Zatoz gure instalazio berriak ezagutzera eta zure landarea aukeratzeko orduan edo eta zurekin gehien dijoan loraintza proiektu hori aurrera eramateko behar duzun aholkularitza izango duzu.”

Ramón Zuloaga (Zuloaga & Gureak-eko Gerentea)

943 556 109 - Iparralde bidea 2/g, 20014 Astigarraga. Futbol zelaiaren aurrean.

**ZULOAGA & GUREAK**  
zure konfidantza zko gardena